berriak
Triforio-tik

154 Zkia.
2026ko azaroa

araba
álava

Santa Maria Katedrala monumentu bat baino askoz gehiago da; izan ere, deskubritzeko dauden historiaz, sorpresez eta txokoez betetako lekua da. Bertako aberastasun guztia erakustea ez da beti erraza izan. Orain arte, planoen, birsortze birtualen eta infografien bidez hurbildu ahal izan dugu bisitariengana eraikin berezi honen historia konplexua.

Orain, beste urrats bat emango dugu komunikatzeko moduari dagokionean, orientaziorako eta zonetan barrena ibiltzeko gida interaktibo hau aurkeztuta. Pertsonaia berriak izango dituzte lagun bisitatzen gaituztenek, espazioetan gidatuko baitituzte eta bitxikeriak eta sekretuak kontatu baitizkiete, Santa Maria esperientzia paregabe eta ahaztezin bihurtzen dutenak.



Dorrea
Hiriko talaia



Katu

berriak Triforio -tik

Estalkiak
Arkitektura berritzailea

Blanca



Gangen gainean, zaharberritzearen bidez material tradizionalak eta forma garaikideak batu ziren, denboraren poderioz deformatzen ari zen eraikin bat salbatzeko.

Triforioa
Ezkutuko altxorrak


Joannes



Nabearen gaineko goiko galeriak behetik ikusten ez diren xehetasunak ikusteko aukera ematen du: deformazio handiak, hargin-markak eta antzinako dekorazioen hondakinak.

Erronda pasabidea
Eliza-gotorlekua

Martin



Santa Maria harresiaren barruan sortu zen. Erdi Aroko hiribildua zaintzen zutenak korridore horretan barrena ibiltzen ziren. Gaur egun, bisitariek erronda egiten dute berriz ere defentsarako inguru horretan.

Elizpea
Kultura

Joseba



Santa Maria harresiaren barruan sortu zen. Erdi Aroko hiribildua zaintzen zutenak korridore horretan barrena ibiltzen ziren.
Gaur egun, bisitariek erronda egiten dute berriz ere defentsarako inguru horretan.

Nabea
UNESCOren Ondarea Donejakue Bidea

Santi



Katedrala Donejakue Bidearen barruan aurkitzen da, Gizateriaren Ondare aitortua. Mendeetan zehar, iparraldeko bideei jarraituz Araba zeharkatzen zuten erromesak hartu zituen.

Kripta
Gasteizen jatorria

Laia



Katedralaren zoruaren azpian Gasteizko antzinako herrixkaren aztarnak daude: hormak, hilobiak eta hiriaren sorburua izan ziren lehen biztanleen arrastoak.